



Sintesiak

Kapituluka, irakurtzen laguntzeko

Arrotzarena

1. Zaldun Beltza jauregiaren jabe da. Hogei urte lehenago Aba Yakuerenean aurkitutako planoekin egin da (Julius Probo arkitektoa?). Arrotzak jakin-min handia du horren inguruan.
2. Otordua amaitzean arrotzari esnea eskaini dio eta honek oka egin du. Pozoitua zelakoan Zaldun Beltzari mehatxu gogorra egin dio. Hala ere, eraikuntza oso-osorik bisitatu dute.
3. (Pasarte laburra) Arrotzarekin ezpataz borroka egiteko pentsamenduetan egon da. Arrotzak ezagutzen omen du.
4. Ate hotsak entzun dituzte. Arrotza oso arduraturik dago. Atzeko atetila batetik irten eta nor den ikus-tera irten dira. Katama bat bide zen, ketan hila.
5. Zaldun Beltzak ez du lortzen arrotza etxetik uxatzea. Elkarri mehatxuka ere aritu dira. Arrotza gaixorik-edo dago. Otto Pette izena erabili du.
6. Zozketa saio bat egin dute nork bere historia kontatzeko. Arrotzak gaixotasun larriren bat dauka. Otto Pette borrero zeneko garaiak ezagunak ditu. Baten batzuk segika dituzte, hiltzeko agian.
7. Zozketa egin dute: galtzaileak bere historia kontatu behar dio besteari. Otto Pettek atera du laburrena; berak egin behar du kontaketa.

Otto Petterena

1. Otto Pette Zaldun Beltza izenez ezaguna. Grazibel honen iloba gaztea, nerabea. Fraide doktrino batek ikuskatzen zituen hauen harremanak.
2. Mugarre kapitainarekin izandako pasadizoak azaltzen ditu. Inexa horren alarguntsa eta Ottoren arreba. Grazibel alaba. Hiru urte zituen aita (Mugarre kapitaina) hil zutenean. Inexa ere senarra hil eta handik bi astetara hil zen. Grazibel zaintzen hamar urte zeramatzan, eta maitemintzen hasiak ziren.
3. Grazibelek Otto tentatu du. Kometa baten agerpenak ekar ditzakeen ondorioez arduraturik dabilta, baina ez Otto. Fraide doktrinoa astean hiru aldiz etortzen zaie etxera, bien arteko harreman arauak ikuskatzera. Urtebete falta da begiratze hau amaitzeko. Biek elkar desiratzen dute.
4. Errondal (margolaria) matxinoak ihes egin du. Haren bila ahalegin handiak egin ditu Ottok.
5. Otto Pettek tortura sistema ohizkoen antzutasuna ikusirik, tramankulu egokiago bat egiteko eskatu dio Julius Probori. Horrekin etekin hobekak izango dituelakoan dago. Errondal harrapatzea du helburu eta aitortpenak (matxinoenak) beharrezko.
6. Otto Pette eta Aba Yakueren arteko tirabirak azaltzen dira, Erregeren begiramena lortzearren. Bitartean, 12 urte dituen Grazibelekin harremanetan segitzen du.
7. Otto eta Grazibel iritsi dira sexu-harreman osoa izatera. Fraide doktrinoa zer jakitera hel daitekeen da beren kezka.
8. Borreroburuak Ottoren bila bidali du mezulari bat. Zeozer harrigarria gertatu da: ziegetan izurri beltzak jotako matxino batzuk dituzte. Otto, oso arduraturik, hiria zelan jagon pentsatzen hasi da: hiripeko ibaia desbideratzea pentsatu du, matxinoak (kutsatuak) akabatzeko.
9. Jonane izeneko neska torturatzen ari dira. Errondali laguntza eman zion ihesean. Dena aitortu du. Ottok hurrengo egunean askatzeko agindu dio borreroburuari; bi arrazoi ditu horretarako:
 - Neska kutsatu gabe irtenez gero, frogaturik geratzen zen ziegak ez zirela izurri beltzaren sorleku.
 - Kutsaturik irtenez gero, herri xehea matxinoen aurka altxatuko zen, haiek akabatu nahian.
10. Ottok Aba Yakuerengana jo du, monasteriora edo. Izurrite handiaren garaiko kodizeak aztertzea du helburu, baina Abari jakinarazi gabe. Honek, ordea, aipatu egin ditu; Ottok menturari egotzi dio asmatzea, baina ez dio ezer adierazi: hizketaldia desbideratzen ahalegindu da.

11. Astebete eman du liburutegian kodizeak arakutzen. Ez du aurkitu nahi zuena, baina beretzako ikur-ele egoki baten bila dabilelakoan fraide batek esaldi aproposa duen liburuxka bat erakutsi dio.
Han ikusi ditu lehenengoz Julius Proboren inizialak dauzkan plano batzuk ere, eraikuntza batenak.
12. Liburutegitik irten eta Erregerengana joan da berri ematera. Errege izurriaz jakinaren gainean dago, bera liburutegian egon den bitartean Aba Yakuek dena (susmoak) kontatu diolako Erregeri. Hau oso haserre dago Ottorekin.
13. Izurriaren aurkako borrokarako aginte osoa eskuratu du Ottok Erregerengandik. Erregek alde egin du. Ottok Aba Yakuez mendekatzeko profitatu du egoera. Berarengana joan da eta lagundu egin behar diola exijitu, bere pareko izendatu duela esanez, baina duen boterea gogoratuaz.
14. Itzuli da Otto jauregira. Zeregin samina du: Grazibel urrun bidali behar du. Liho-ele polita asmatu dute. Baina egoera triste eta larrian daude. Azkenean abiatu da Grazibel eta Otto monasteriora plano batzuen bila.
15. Bukatu du Ottok kontakizuna. Orain arrotzaren txanda da. Gaua luze joan da eta egunsentia da. Ottok oraindik ez daki nor den arrotza, baina honek Ottoren hainbat gorabehera ezagutzen ditu.

Errondalena

1. (Atal luzea) Arrotza pintatzailea da. Zuka hitz egiten dio Ottori. Erregeren semearen jaiotza ospakizuna kontatu du lehenengo. Jonane ageri zen koadro baten eskaintza egin zion Erregeri; baina, biluzik zegoela-eta, Aba Yakuek gaitzetsi egin zuen biziki. Ondorioz, baita Erregek ere.
Arrotza, margolaria, hiltzera kondenatu du errege mutilzaleak. Margolariak ospakizunean gertaturiko guztia ongi gogoratzen du: Ottori eman zion agindua Erregek. Ottok hiltzea baino zerbait hobe gordea ziola esan zion: tramankulu berri bat probatuko zuela berarekin.
2. Errondal da margolaria. Ziegetako esperientzia beldurgarria kontatu du, baita zelan ohartu ziren ere izurri beltzaz: mamiñun Agatha ziegetatik atera eta lurperatu zutenean, beraiek atera eta izurriaren seinaleak ikusi zizkieten. Handik aurrera babesten hasi ziren. Aba Yakue ere jakitun zen, eta Ottok liburutegian ematen zuen denbora inor ohartu ez zela pentsaturik.
Errondalek hau gertatu zenean 12 urte zituen eta Musde Dexes hil zuten garaiaz gogoratzen da: Mugarre kapitaina eta Otto. Horrek matxinada eragin zuen.
Ziegetatik zelan alde egin zuen kontatu du zehaztasun handiz. Iluntasun erabatekoan, haztaka, sabaiko harlauzak askatu eta atzamarrak zauritu arte zulatu zuen; gainera iragaten zen (ubideko) estoldako urak lagun. Bi “satorzale” ere izan zituen salbatzaile handik ateratzeko.
3. Errondalek segitzen du kontaktarekin. Jonaneren etxeraino heldu zen eta honek laguntza eskaini zion. Errondal eta Jonane maitemindu egin ziren. Errondalek arriskutan ikusten du euren bizia. Amodioa egin dute, baina oso kezkatu segitzen du Errondalek, alde egin nahian, Jonaneri ezer gerta ez dakion.
Errondalek ihes egin du Jonane etxean utzita. Handik bi urtera elkartzekotan dira. Hala ere, berak alde egin bezain laster harrapatu zuten baronetaren borroeroek.
4. Marider eta Briskotek laguntza eskaini diote ihesaldian. Iraganeko gertakizun bat ere gogoratu du Errondalek; eztabaidan ere ibili dira eta badoa ihesi.
5. Ihesean Allandebide estrata hartu zuen. Han iturri batean edan zuen: Musde Dexes-ek egindako iturrian, Mugarre kapitaina kezkatzen zuten letra batzuk idatzirik zituena: M.D. Iturriari buruz esamesa bitxiak sortu ziren: batzuen ustez sendagarria zen; kaltegarria bertako ura edatea, beste batzuen esanetan.
6. Sein Floret monasterioa haur harrigarri baten omenez eraiki omen zuten. Harako bidean ikusezin batek eraso egin dio: zaldia hil eta ozta iritsi da monasteriora.
Monasterioan Prefosta Pillardit-ekin batu da. Bere anaia izan daitekeela dio. Gaztetan batera bizi izan ziren; Pillardit, gero, Aba Yakuerekin joan zen eta fraide doktrino egin zen. Pillardit-ek hizkera modu bihurria darabil. Errondal beti izan omen da ezkorra. (Kantu zahar zatiak, iparraldeko hizkeraren zantzia dutenak)

Nork eraso dion galdetzean, Pillardit-ek estu oratu dio sama inguruan. Bera izan bide da erasotzailea. Hala ere, ez da horrela. Pillardit azalpenak ematen hasi da: monasterioan dago; baronet-en soldadu taldeetako aurrekari bat izan daiteke. Lo egin eta hurrengo egunerako zaldi arin bat eskaini dio Pillardit-ek.

7. Katedral ondoan daude. Pillardit-ek konjuru liburu bat erakutsi die eta hauts bereziak dituen poltsa bat. Harekin sexu harremanetarako gogoia eta indarra lortzen omen dira eta gonbidatu egin ditu. Ondoren, konjuru egiteko prestatu dira. Egin dute, baina gauean ez da ezer gertatu. Ametsa izan da dena. Monasterioan dago Pillardit-ekin esnatu denean.
8. Errondalek Pillardit-i zuka egiten dio. Pillardit-ek Errandali hika.
Errondalek galdera egin dio zergatik aukeratu zuen bizimodu hura. Pillardit-ek, bere aldetik, idazki bat prestatzeko agindu dio: paper puska batean latinezko esaldi bat, ikur-elea. Ondoren, bi zaldiren marrazkia eta istorio labur bat idatz zezala. Otto engainatzeko prestatu zuen dena Pillardit-ek. Beraz, lehenago Otto-k azaldu duen aurkikuntza ez da halakoa, monasterioan bertan prestatua baizik.
9. Pillardit-ek izurri beltzarena kontatu dio Errondali: honek gaixotasuna daramala zabaldu da. Alde egin du monasteriotik Ottoren soldaduak atzetik dituela. Hamabi egun geroago Tartes hiri ondoan zegoen.

Balbeenarena

1. Otto Petterena da narrazioa. Kontakizunak amaituta, jateko zerbait eskaini dio eta arrotza, ondoren, lo geratu da. Arrotza berriz ere botaka hasi da. Otto hurbildu egin zaio laguntzera, baina arrotzak gogor esetsi dio. Arrotzak ezpata kendu eta hiltzeko mehatxua egin dio. Une batez arrotzaren jatorriaz egin du gogoeta: inork ez zekien nondik sortuak ziren gizaki haiek; besteek mespretxatu egiten zituzten. Ilehoriak eta begiurdinak ziren. Hondamendien sortzaile omen ziren. Eta hauek balbeena botatakoan hil egiten zen mehatxatua. Horregatik hiriko jendeak beldurra zien. Oraingoan, arrotzak belbeena bota dio Ottori eta hau hiltzera kondenatua sentitu da. Geroago arrotza lo geratu da.
2. Otto ihesa prestatzen dabil, egokieraren zain. Arrotza lo dagoela aprobetxatuz, etxetik irten da alde egiteko. Kortan bere zaldia hilik aurkitu du, Errondalek hila. Ibaitek alaz (txalupa mota bat) alde egitea erabaki du orduan. Baina hondoratua utzi du arrotzak. Su eman dio belazeari, baina suak etxerantz bultzatu du. Sua aurrera doa. Etxetik hur arrotza azaldu da Ottoren aurrean. Halako batean, biek hil behar zutelara zirudienean, hodei beltzek euria ekarri dute, euri zaparrada handia; dena geratu da uretan. Jauregira itzuli eta hitz egiten segitu dute.
3. Grazibel du gogoeta gai. Alde egin eta bi hilabetera mezulari bat etorri zitzaion. Gutuna Grazibelena: kutsatua zegoela kontatzen zion. Kolpe gogorra gertatu zitzaion. Mezularia erantzunik gabe itzuli zen. Hura ere kutsaturik zegoela konturatu zen Otto. Ondoren, Otto bere burua hiltzen ahalegindu da. Hala ere, Grazibelengana joatea erabaki du eta Fiammeta jauregirantz abiatu da (etxeko arrokekin, ohartu gabe).
Heldu orduko geldiarazi dute: ez zuten uzten Fiammetan inor sartzen ez handik irteten. Atzera egin zuen eta Fiammetatik urrundu.
4. Pentsamenduetan erdi lotan egon da eta kolpean iratzarri dute. Begiratu eta Battis Tobera dela ohartu da.

Battis Toberarena

1. Narratzaile: Battis Tobera. Ezkutaturik dago ibai bazter batean, txakurrarekin. Gorpu bat aurkitu du txakurrak uretan. Battis-ek arropa batzuk kendu eta bertan utzi du. Hirirantz abiatu da. Hirian sartzeko itsu eta eskale itxurak hartu ditu. (Azalpenetarako grazia handia du; pasarte batzuk oso ironikoak). Soldaduen aurrean Battis-ek gaixo larri egotearen trazak hartu ditu. Soldaduek Ottoren leotzetako zamaldegira eraman dute. Han Otto agertu zaio. Honek ibaiko gorpua nola zegoen galdetu dio eta txanpon bat eman erantzun dezan. Luze galdekatu du; gorpua izurri aztarnak dituen kezkatuta dago. Azkenean Errondal dela erabaki du Ottok eta hala onartuarazi dio Battisi, nahiz eta honek ez dela Errondal jakin. Ottok behartu egin du Battis, hildako kutsatua Errondal zela esan dezan. Ottok badaki ez dela itsua, amarru hutsa dela.

2. Battis esnatu denean txakurra aztertu eta izurriak jota dagoela ohartu da. Txakurra zubiraino erakarri eta ur-lasterretara bota du. Gero taberna batean sartu da mozkortzeko; han gazte batek laguntza eskaini eta handik aterpe batera eraman du. Hala ere, ez du Ottok agindutakoa bete.
3. Battis-ek bere bizimodu errariaren zergatia azaldu du: gaztetan, ezkontzekotan zela, hartz ehizan ari zen eta etxera itzulita balazta baten bila bere ita topatu zuen hitzemandako zegoen neskarekin. Aita hil eta alde egin zuen betiko.
4. Battis-ek eta gazteak aterpean segitzen dute. Hizketan ari dira. Gaztea txantxatan hasi zaio eta Battis-ek zirikatu egin du. Gaztea haserretu eta Battis-i eraso egin dio. Borrokan norbait azaldu da eta Gartxot deitu dio gazteari.
5. Agertu dena Musde Briskot da. Battis harrapatu dute galdeketa egiteko baronetarekin zelako tratua-edo zeukan jakiteko. Mehatxuka ari zaizkio aitor dezan, baina Briskot-ek ez du horretarako borondaterik erakutsi.
6. Dama Beltza, izurritea izan zeneko garaiak gogoratzen. Heriotza eta sufrimendua non-nahi. Battis-ek kontatu du nola engainatu zituen plazan urkatzera zihoazenak, izurriak jota zegoela, pinporta faltsuak erakutsita. Denek alde egin zuten izuturik eta hala salbatu zen.
7. Plazaraino eraman dute. Han herritarrak erasoan hasi zaizkio. Gogor kolpatu dute. Orduan Aba Yakue agertu da. Ez da Aba Yakue, berak bidalitako fraide bat baizik. Battis-ekin berba egin gura du.
8. Astebete geroago, plazan kantari ari zela, baronet agertu zen. Bertso barregarri batzuk kantatzen ari zen, baronetaren kontrakoak, hain zuzen. Baronetari iseka egiteko bertsoak Aba Yakuek ordainduta kantatzen zituen. Baronetak bere etxera eraman zuen.

Battis-ek segada bat proposatu dio Ottori Aba Yakueren kontra: erregeren izenean bilera bat eskatu diete Yakue eta fraideei baroneta eta izurriari buruz deliberatzeko.

Ottoren aginduetara eta fraideen aurrean Battis-ek larrua jo du Añes deitzen den neskatxa batekin.

Zaldun Beltzarena

1. Otto narratzaile.

Ez daki aurrean duena Battis ala beste norbait den. Gogoratu du Aba Yakueren kontra prestatu zuen amarrua. Zauritu egin zutela, hildakotzat ere jotzen zuten. Erregek erasotzaileak harrapatzeko eta zigortzeko agindua eman zuen. Ottok ustezko erasotzailea Aba Yakuerengana bidali zuen laguntza eske eta hark eman egin zion. Gero Otto soldadu horrekin bildu zen, Añes-ek eta Battis-ek agindutakoa betetzen zuten bitartean eta plano batzuen bila abiatu zen. Artxibotik planoak hartuta, Aba Yakuerekin tratua egin zuen: berak ez zuen erasotzaileari eskainitako laguntza aipatuko eta Abak ez zuen planoen gogoratuko; Otto oraingo juregiaren jabe egin zen horrela. Ondoren, Erregek sinatu zion jabetza-zedula bat.

Jauregia lortuta Ottok alde egin nahi du bertara eta utzi Erregeren zerbitzua. Justizia egin nahi duen arrotzarekin segitzen du.

2. Ottok izurritearen aurkako lana utzi nahi duenez, halako jokabide gogor bat hartu du: izurritearen aitzakiaz gosetea eragingo du hirian, janaria murriztu, ura...

Hiria geldiaraztea lortu zuen eta jendea izutzea. Hildako ugari eragin zuen. Hiria bere menpe, ikuskatzen ere aritzen zen: Zaldun Beltza izena nagusitu zen orduan. Jonane aurkitu zuen behin kale kantoi batean, izurriak jota eta hila.

Mikaleten errota suntsitu egin zuten Ottoren soldaduek eta bertan zeuden guztiak hil. Sarraski itzela izan zen.

3. Izurriteak aurrera egiten du. Ottok Aba Yakue akabatu nahi du: ez du haren berririk planoak lortu dituenetik.

Katedral aurrean masta luze bat jarri eta zanga bat ireki du: ondoren izurriaz hildakoak pilatu ditu bertan, eta usteltzen utzi.

Azkenean, Aba Yakue irten da katedraletik. Ottok, orduan, lau lurperatzaile eskatu dizkio eta hauetakoren bat hilez gero ordezkoa. Asmoa da apurka-apurka denak akabatzea, Aba bakarrik geratu arte.

Horrela egin du: Yakuek lau gormutu bidali dizkio, agure satorjaleak.

4. Jendea lurperatzaileen aurka altxatu da. Arrazoa: legenardunak omen dira eta beren begirazoarekin kutsatu egiten omen dute. Horrela, ba, lurperatzaile bat salbatu behar izan du herritarren erasoetatik. Joaten utzi eta jazarri egin dio: estolda zulo batean desagertu da.

5. Hirian zehar, Ottok Manez Muxela agure trepetagilea aurkitu du. Galdera batzuk egiteko asmoz hurbildu zaio eta hara non ohartu den Battis Tobera dela.

Ilehoriei buruzko informazioa eskatu dio eta honek horien historia kontatu dio: legenarraz gaixotu eta erreginari zorne beltza kutsatu omen zioten. Erregek zigortu egin zituen: mihia ebaki, sei puntako izarra bekokian markatu eta joale bana lepotik zintzilik ibiltzera. Baina ilehoriak matxinatu egin ziren eta Errege jauregiari eraso. Erregek aurre egin zien eta ehunka amilarazi zituen erroitzatik behera. Besteak ezkutatu egin ziren hiripean. Aba Yakuek badu zerikusirik horrekin.

6. Lurperatzaile edo 'txantxarri' bat Ottoren bila joan da eta lurpeko beren eremuetara eraman du. Lurpeko pasabideetan ilehoriak aurkitu ditu lanean, hiriko zaborrak bereizten. Irten, katedraleko baratzean-edo irten dira; han, belar gainean, Añes hilik ikusi du; bere kapan bildu eta pasadizoetatik itzuliz, katedraleko harresiraino eraman zuen lurperatzeko. Tristura eta bakardade handia sentitu zituen.

7. Otto bere jauregirantz joateko zela, Errege azaldu zaio bidean erantzunkizuna eskatzera: Erresuman izurriteak atzera egin zuen; hirian ez, ordea. Horretan, fraide doktrino mezulari bat iritsi da. Hiria sutan dagoela eta katedrala salbatzeko ahaleginetan ari zirela.

Erregek Ottori egotzi dio sutearen errua eta fraideak ere baiezkoa egin du. Bere burua zuritzeko aukera gabe, Ottok suaren onura arrazoitu dio Erregeri. Honek, amorruz ezpata atera du baina ez da ausartu Ottori erasotzera. Otto, barreka, bere jauregirantz abiatu da.

Azken solasa